

ERRESISTENTZIA KUTXA NAZIONALA

Gune autogestionatuen defentsarako mekanismo eraginkorrak sortzea eta garatzea. **Helburu horrekin jaio zen Erraki**. Orduetik, lanaren eta antolakuntzaren kulturaren baitan, sakabanatuta ageri zitzaizkigun indarrak metatu eta gatazka egoeren aurrean erantzuteko baliabide espezifikoak garatzeari ekin genion.

Gaurkoan lan ildo ekonomikoaren emaitza den erresistentzia kutxa nazionala kontzeptuari sarrera ematea dagokigu. Elkartasunean eta elkar-babesean oinarritutako erreminta honen bitartez, borrokan ari diren gune autogestionatuentzat berebizikoa den laguntza ekonomikoa emateko gaitasuna eskuratu nahi da. Izan ere, askotarikoak izaten dira espazio baten birjabetzearen ostean ematen diren gastuak, hala nola, eraikinaren egokitzapenek, erresistentzia kanpainen, isunek, abokatuek...sarritan espazioetan aurkitzen den gaitasun ekonomikoa gainditzen dute eta, ondorioz, beraien aktibitate politikoa erresistentzia ekonomikoa gauzatzerantz bideratu behar izaten dute.

Erresistentzia kutxa nazionalaren bitartez elkartasun ekonomikoa bultzatu nahi da, gaztetxeen olatu berriaren ondorioz irekitzen diren erresistentzia kanpainei laguntzeko, koiuntura politikoaren aldaketek ekar ditzaketen gune autogestionatuen aurkako oldarraldietatik babesteko, prozesu judizialen kolpeetatik babesteko (**Eztena Gernikako bloke okupatuaren kasuan, adibidez, 40.000 euro arteko isunak aurre ikusten dira**), finean, presio ekonomikoak gauzatzen duen egoera itogarriari erantzun sendo eta eraginkor bat emateko sortzen dugu erreminta hau.

Gure apustua diziplinan eta konpromisoan oinarritutako kultura politikoan sustraitzen diren babes forma eraginkorrak martxan jartzea da. Jabetza ezak dakarren babesgabetasun egoerari aurre egiteko jaio gara eta erresistentzia kutxa nazionala pauso bat gehiago da norabide horretan.